



Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 10ekoa. Horren bidez, Lezamako Udalari gomendatzen zaio esanbidezko ebazpena ematea, (.....) elkarte udal Elkarteen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa.

Aurrekariak

1. (.....) auzotarren elkarteak kexa aurkeztu zuen erakunde honetan. Haren bidez salatu zuen Lezamako Udalak ez ziola erantzunik ematen egindako eskaerari. Izan ere, elkarte udal Elkarteen Erregistroan inskribatu nahi zuten.

Elkarteak dio zortzi urte baino gehiago daramala aipatu udal erregistroan, auzotarren elkarte gisa izena eman nahian. Izan ere, hala dago erregistratuta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Ofizialean. Eta, diotenez, oraindik ez dute eskaerarentzako erantzunik jaso.

Egoera honek kalte argiak dakartzkio elkarteari, udalak elkarteentzako eskuragarri jartzen dituen baliabideak ezin dituztelako baliatu. Hala nola, udal lokalak erabiltzea, daukaten web orrialdeari buruzko informazioa eta diru-laguntzak jasotzeko aukera.

Arartekoak Lezamako Udalari eskatu zion, kexak agertutako kontuei buruz berri ematea. Bereziki, elkarte zegokion udal erregistroan ez inskribatzeko zer arrazoi zegoen.

2. Lezamako alkateak honela erantzun zion egin genuen lehenengo eskaera honi:
 - Udalak kulturako eta kiroleko jardunak egiteko ematen ditu diru-laguntzak.
 - Kirol jardunen artean, iaz "Lezamako Mugetatik" probari diru-laguntza eman zioten, eta kirol proba hori (.....)-ek antolatu zuen.
 - Web orrian agertzen diren elkarteak kulturako edo kiroleko helburuak dituztenak dira, eta gastronomiakoak, politikakoak edo auzokideenak ez dira ageri.

Jasotako informazioa baloratu genuen, eta ez zion erantzuten Elkarteen udal Erregistroan erregistratzeko gaiari erantzuten. Ondoren, Lezamako Udalari gure gogoeten berri eman genion, gaiari buruzko udal erregulazioari buruz genuen informazioa ikusita.

Beraz, adierazi genituen argudioen arabera, eta ebazpeneko azalpen zatian hizpide hartuko ditugun arabera, agertu genuen elkarte erreklamaziogilea egoki den erregistroan ez inskribatzearen arrazoiak ez zirela argitu.

3. 2009ko ekaiaren 30ean, Lezamako alkateak gure balorazioari erantzun zion, eta gure aurreko jakinarazpenean jada esan zuena errepikatu zuen. Orduan, adierazi





zigun (.....) ez dagoela Kultura eta Kirol Erakundeen udal Erregistroan sartuta, baina ez zigun horren arrazoirik adierazi.

Azpimarratu beharra dago, azkenekoz, 2009ko maiatzaren 22an eskatu zuela auzotarren elkarteak erregistroan sartzea. Aurretik egindako eskaeren ildoari jarraiki, 2006an aurkeztutako dokumentazioa aurkeztu zuen, eta aurkeztu zuten idazkiari espresuki erantzutea eskatu zuten.

Erreklamazioa ikusita, kexan adierazitakoa eta jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Administrazioa behartuta dago prozedura guztietan berariazko erantzuna ematera eta hori jakinaraztera, prozedurei hasiera emateko modua edozein dela ere (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42,1. artikulua).

Betebehar hori ez betetzea administrazioak oinarritzat hartu behar dituen printzipio orokorrak urratzea esan nahi du; bereziki, esku artean dugun gaiari dagokionez, bere jarduna legeak dioenaren arabera eta herritarrei zerbitzua emateko izan behar duelako.

Aurrekarietan jaso bezala, azpimarratu beharra dago, interesdunek eskaera ugari egin dutela Elkartearen Udal Erregistroan sartzeko. Azkena Lezamako Udalaren aurrean esku-hartzea burutzen ari ginela izan zen. Udalak, berriz, ez dio erantzun ez interesdunari ez erakundeari ere.

2. Lezamako Udalak, 1996ko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuran, kultura eta kirol jarduerentzat diru-laguntzak eskatzeko eta emateko prozeduraren ordenantza arautzailea onartu zuen.

Ordenantza horren edukian -daukagun informazioaren arabera indarrean jarraitzen du- honako alderdiak marka ditzakegu:

- Diru-laguntzak Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erroldan izena emanda duten udalerrietako eta Elkartearen udal Erregistroan altan emanda dauden irabazpide xede edo asmorik gabeko erakundeek eta elkarteek eskatu ahal izango dituzte (5 a artikulua).
- Besteak beste, eskatzaileek Elkartearen Erregistroan izena emanda dutela egiaztatzen duen frogagiria aurkeztu beharko dute (6.1 b artikulua).





- Udal diru-laguntza jaso nahi duten herritarren erakundeek eta elkarteek Lezamako Udaleko Kultura eta Kirol Erakundearen Erregistroan eman beharko dute izena (xedapen gehigarri bakarra).

Beraz, puntu honetan, ordenantzak bi erregistro ezberdin aipatzen dituela ematen duen arren, errealitatean Kultura Jardunen eta Kirolen Erakundeena bakarrik dago. Erregistro horretara sar daitezke herritarren elkarteak, eta hor jasota daudenean, herritarren erakunde eta elkarte izaeraren baitan hartzen dira. Noski, kultura eta kirol gaietarako diru-laguntzak jasotzeko aukera dute.

Gainera, egiaztapen horren baieztapena erreklamazioa egin duen elkarteak eta beste batzuk diru-laguntza bat kirol proba bat antolatzeatik jaso izan da.

Gorago aipatu dugun xedapen bakarrak dio herritarren entitateek eta elkarteek egoki betetako eskabidea aurkeztu behar dutela, honako informazioarekin batera: Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan inskribatuta egotea, estatutuak, gobernu organoen eraketa eta kideen izenen zerrenda.

3. Lezamako Udalak ez du arrazoitutako ebazpenik eman elkarteak Elkartearen udal Erregistroan ez sartzeko, eta horrek defentsa gabeko egoeran jarri ditu, argi. Gainera, beste kalte batzuk ere ekarri dizkie, hala nola, udal lokalak erabiltzeko aukera galtzea, edo udalerrian diharduten beste elkarte batzuek dituzten baldintza berekin udal baliabideak erabili ahal izatea.

Horri dagokionez, udalak elkartei buruz bere web orrian ematen duen informazioari buruzko aipamen berezia egin behar da. Izan ere, gai horri buruz bakarrik lortu dugu erantzuna, erdizka bada ere. Udalak dio bere web orrian kultura eta kirol gaietako elkarteak jasota daudela, eta ez gastronomikoak, politikoak edo auzotarrenak.

Aurreko atalean adierazi dugun bezala, herritarren elkarte guztiek -erreklamazioa egin duen auzotarrena ere herritarren elkarte gisa hartzen dugu- Kultura eta Kirol Erakundearen Erregistroan sartzeko eskubidea dute. Beraz, udal araudiak berak Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan inskribatutako elkarte guztiak hartzen ditu barne, eta kulturako edota kiroleko helburuak dituztenen pareko jartzen ditu. Ikuspegi honetatik, ezin dugu ulertu zergatik ezin den hizpide dugun elkarteari buruzko informazioa web orrian, ofizialki, elkartei buruzko informazioa ematen den tokian.

Bestalde, web orriko atalak "elkarteak" baino ez ditu hizpide; ez du zehazten bertan jasotako informazioa udalaren aburuz kirol edo kultur elkarte gisa hartzen direnei buruzkoa dela. Nolanahi ere, egiaztatu dugu, web orriko elkartearen zerrendan, kultura eta kirol izaera oso modu zabalean hartzen da. Adibidez, zerrendan sartutako elkartearen artean, honako helburuak aurkitu ditugu: gaztetxoaren alde lan egitea, eskola publikoaren alde eginez; adinekoentzako ekintzak sustatzea; xede soziokulturala duten emakumeen





elkartek, arma eta ehiza agirien izapidetzea; mikologia eta natura zaletasuna sustatzea, etab.

Funtsean, udalak ez dio erantzun elkarte erreklamaziogileak egin duen eskaerari, Elkarteen udal Erregistroan inskripzioa egiteari buruzkoa. Era berean, ez dio erakunde honi jakinarazi jardun faltaren arrazoirik. Ondorioz, aztertu dugun udal araudiari buruzko informazioaren arabera, ez dago arrazoirik elkarte hau udal erregistroan ez sartzeko.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

19/2009 GOMENDIOA, abenduaren 10ekoa, Lezamako Udalari egina:

1. Aurretik egin behar diren izapideak eginda, esanbidezko ebazpena eman diezaiola (.....) auzotarren elkarteak udal Elkarteen Erregistroan sartzeko egin dion eskaerari. Eta, hala badagokio, udal baliabideak erabiltzeko sarbidea erraztu diezaiola, gainerako elkarteek erabiltzen dituzten baldintza berdinetan erabili ahal izateko.
2. Nolanahi ere, aipatu elkarteak bere garaian egin zion eskaerari egoki erantzutea.

